

BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA SAILA

4831

EBAZPENA, 2019ko urriaren 4koa, Lurralde Plangintzaren sailburuordearena, zeinaren bidez ebazten eta argitaratzen baita udal plangintzan eta hirigintzan genero-ikuspegia integratzeko dirulaguntzak emateko arauak ezarri eta 2019ko ekitaldirako deialdia egiten duen Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren 2019ko maiatzaren 22ko Aginduan aurreikusitako deialdia.

2019ko ekainaren 5ean, EHAA-n argitaratu zen (105. zk.) Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren 2019ko maiatzaren 22ko Agindua, udal plangintzan eta hirigintzan genero-ikuspegia integratzeko dirulaguntzak emateko arauak ezarri eta 2019ko ekitaldirako deialdia egiten duena.

Eskabideak aurkezteko epea 2019ko uztailaren 5ean bukatu zen, agindu horren 6.1 artikuluan ezarri zenez. Epe horretan, guztira, 16 eskabide sartu dira (ebazpen honen I. eranskinean daude jasota).

Agindu horren 8.1 artikuluan xedatutakoa dela bide, 2019ko irailaren 17an, dagokion balorazio-epaimahaiak eratu zen, hartutako eskaerak aztertu eta egiaztatzeko xedez, kontuan hartuta 9. artikuluan xedatutakoa, hau da, esleipenerako irizpideak eta gehieneko puntuazioa.

Agindu horren 17. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, guztira 200.000 euro bideratuko dira dirulaguntza hauek emateko. Bestalde, 15. artikulua zehazten du diruz lagunduko dela dokumentua idazteko laguntza teknikoak kontratatzeak dakartzan gastuen % 90, dokumentu bakoitzerako 20.000 euroko gehieneko muga jarrita (biztanle-kopuruaren arabera zuzentzailearekin), aurrekontuko kreditua amaitu arte, eta ezin izango dira diruz lagundu ez BEZa ez bestelako zergak.

Epaimahaiak, proposamenak aztertu eta egiaztatu ostean, 2019ko urriaren 4an, 8.2 artikuluan xedatutakoari erreparatuta, sailburuordetza honi aurkeztu zitzaion esleipenerako proposamena, non adierazten den zein eskabide diren dirulaguntza jasotzeko proposatzen direnak, barnean hartuta udal onuraduna, diruz lagun daitekeen proiektua, lortutako puntuazioa eta proposatutako dirulaguntzaren zenbatekoa.

Deialdia egiteko aginduaren 10. artikuluan xedatutakoa kontuan hartuta eta balorazio-epaimahaiak egindako proposamena ikusita, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.— Udal plangintzan eta hirigintzan genero-ikuspegia integratzeko dirulaguntzak ematea, 2019ko ekitaldirako, ebazpen honen II. eranskinean adierazitako udalei (bertan aipatzen da emandako zenbatekoa), dokumentua egin dezaten.

Bigarrena.— III. eranskinean jasotako eskabideak ukatzea, bertan adierazitako arrazoiengatik.

Hirugarrena.— Deialdia egiteko aginduaren 18. artikuluan adierazitako moduan eta epeetan egingo da dirulaguntzaren justifikazioa eta ordainketa.

2019ko urriaren 18a, ostirala

Laugarrena.— Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea, eskatzaile guztiei jakinarazteko, aipatutako aginduaren 10. artikuluan adierazitakoarekin bat etorriz.

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko urriaren 4a.

Lurralde Plangintzaren sailburuordea,
MARIA ARANZAZU LETURIONDO ARANZAMENDI.

I. ERANSKINA

JASOTAKO ESKABIDEAK

Eskatzailea	Dokumentuaren izenburua
Astigarraga	Genero ikuspegitik Astigarragako Eraikuntza- eta Urbanizazio- ordenantzak proposatzea.
Durango	Proceso de inserción de la perspectiva de género en el documento de Avance del Plan General de Ordenación Urbana de Durango.
Errenteria	Revisión del Plan General de Ordenación Urbana respecto a la perspectiva del género.
Gamiz-Fika	Análisis-diagnóstico del municipio de Gamiz-Fika e incorporación de criterios al PGOU-HAPO desde la perspectiva de género y urbanismo inclusivo.
Laguardia	Análisis-diagnóstico del municipio de Laguardia e incorporación de criterios al PGOU desde la perspectiva de género y urbanismo inclusivo.
Lapuebla de Labarca	Propuesta para la realización de la Evaluación de Impacto de Género del nuevo PGOU de Lapuebla de Labarca.
Ondarroa	Ondarroako HAPOan Genero Ikuspegia txertatzea, Aurrerakin Dokumentuaren idazketan zehar.
Oñati	Integración de la perspectiva de género en el Plan General de Ordenación Urbanística de Oñati. Fase de Avance.
Orio	Orioko Plan Orokorren barruan genero ikuspegia landu eta txertatzeko proposamena.
Orozko	Proceso de inserción de la perspectiva de género en el documento de Avance del Plan General de Ordenación Urbana de Orozko.
Plentzia	Integración de la Perspectiva de Género en el PGOU de Plentzia.
Sukarrieta	Incorporación al PGOU de criterios desde la perspectiva de género, en el proceso de su revisión.
Usurbil	Usurbilgo plangintza orokorreko hasierako onarpen dokumentuan genero ikuspegia txertatzeko agiria idaztea.
Vitoria-Gasteiz	Integración de la perspectiva de género en el nuevo PGOU de Vitoria-Gasteiz.
Zambrana	Análisis del PGOU de Zambrana desde la Perspectiva de Género.
Zigoitia	Introducir la perspectiva de género en el PGOU en elaboración.

II. ERANSKINA

ONARTUTAKO ESKABIDEAK

Udala	Dokumentuaren izenburua	Puntuazioa	Dirulaguntzaren zenbatekoa (euro)
Astigarraga	Genero ikuspegitik Astigarragako Eraikuntza- eta Urbanizazio-ordenantzak proposatzea.	6,70	12.150,00
Durango	Proceso de inserción de la perspectiva de género en el documento de Avance del Plan General de Ordenación Urbana de Durango.	8,25	14.670,00
Errenteria	Revisión del Plan General de Ordenación Urbana respecto a la perspectiva del género.	5,05	8.810,10
Laguardia	Análisis-diagnóstico del municipio de Laguardia e incorporación de criterios al PGOU desde la perspectiva de género y urbanismo inclusivo.	6,30	6.176,73
Lapuebla de Labarca	Propuesta para la realización de la Evaluación de Impacto de Género del nuevo PGOU de Lapuebla de Labarca.	5,00	2.700,00
Ondarroa	Ondarroako HAPOan Genero Ikuspegia txertatzea, Aurrerakin Dokumentuaren idazketan zehar.	6,65	13.230,00
Oñati	Integración de la perspectiva de género en el Plan General de Ordenación Urbanística de Oñati. Fase de Avance.	7,65	12.018,60
Orio	Orioko Plan Orokorraren barruan genero ikuspegia landu eta txertatzeko proposamena.	7,55	12.146,92
Orozko	Proceso de inserción de la perspectiva de género en el documento de Avance del Plan General de Ordenación Urbana de Orozko.	8,05	8.162,69
Plentzia	Integración de la Perspectiva de Género en el PGOU de Plentzia.	7,80	10.403,35
Usurbil	Usurbilgo plangintza orokorreko hasierako onarpen dokumentuan genero ikuspegia txertatzeko agiria idaztea.	5,15	12.393,56
Vitoria-Gasteiz	Integración de la perspectiva de género en el nuevo PGOU de Vitoria-Gasteiz.	6,10	13.320,00
Zambrana	Análisis del PGOU de Zambrana desde la Perspectiva de Género.	7,65	4.167,06
Guztira			130.349,01

III. ERANSKINA

UKATUTAKO ESKABIDEAK

Udala	Ukatzeko arrazoia
Sukarrietako Udala	Ez da diruz laguntzeko xedea (2019ko maiatzaren 22ko Aginduaren 1. artikulua).
Zigoitiko Udala	Ez da diruz laguntzeko xedea (2019ko maiatzaren 22ko Aginduaren 1. artikulua).